

Musika

Gaztemaniak! errautsetatik berpiztu da

Iaz bizitako krisia gaindituta abian da musika experimental eta alternatiboaren urteroko topaketa: Gaztemaniak! Urte amaiera bitarte Gipuzkoako hainbat txokotan hemengo eta kanpoko taldeak entzuteko aukera paregabea.

UXUA LARRETXEA

GAZTEMANIAK! programaren aurtengo edizioa martxan da, eta horri esker, musikazaleek normalean entzuten ez dituen hainbat estilo oholtza gainean entzuteko aukera izango dute. Ondorengo asteetan New Yorkeko The Drums eta Japoniako Osaka Monoaurial taldeen zuzenekoak ikusi ahal izango dira, besteak beste.

Programak lehen urratsak eman zituenetik gorabehera asko izan ditu. Hasieran musika emanaldiez gain hainbat ekimen egiten zituzten, komikiak, fantasia eta beldurrezko zinema maratoiak edo maketa lehiaketak, kasu. Gaur gaurkoz kontzertuetara mugatzen da programa, nahiz eta *Gaztemaniak! solasaldia* deritzon iniziatiba martxan jartzeko asmoa badaukaten. Edorta Bergua programaren arduradunak zertan datzan azaldu du: “Bi saio dinamiko izango dira eta horietan izen handiko musikari, kritikari eta blogariek hartuko dute parte. Musikaren inguruko gaiak izango dituzte hizpide; hala nola, musikaren zabalkundea edo norberaren musika sustapena kudeatzeko bideak”. Zarautzen edo Hondarribian gauzatu dira saio horiek.

Iaz Gipuzkoako Foru Aldundiak egitaraua bertan behera uztea erabakia zuen, baina gizartearen presioak lortu zuen eragozte. Hori bai, ekimenari bideraturiko dirua murriztu egin dute. Aurten 90.000 euroko aurrekontua du, iaz baino %25 txikiagoa. “Aurrekontuaren murrizketa dela-eta programa ezin dugu zabaldu nahiko genukeen moduan”. Dena den, Berguaren esanetan krisiak agerian utzi zuen Gaztemaniak! programak

eskaintza musikalean bere lekua egina duela eta sona handikoa dela: “Iaz gertatutakoak erakusten du eskaera sozial handia dagoela, eta jendeak gustuko duen ekimena dela”. Gaztemaniak!-en programatzaile Jose Joaquín Forcada *Forki* ere bat dator Berguarekin balorazio baikorra egiterakoan, eta onartu du, “hunkigarria” izan zela jendearen erantzunari esker politikariek iritzia nola aldatu zuten eta hilda zegoen egitaraua berriro nola berpiztu zen ikustea.

Hutsunea betetzeko sortua

“Ekimena martxan jarri genuenean ohartu ginen gazteei begirako musika eskaintzari dagokionez gabezia zegoela, musika ez-komertziala entzuteko aukera murrizta baitzen”, dio Berguak. Hutsune hori bete asmoz jaio zen proposamen berria duela hamasei urte, eta hortaz, denbora honetan guztian helburu nagusia musika ausarta eskaintzea izan da. *Forki* dio programatzaileek sekula ekarriko ez lituzketen proposamenak aukera-

The Drums talde amerikarra da ikasturte honetako Gaztemaniak! programan ikusmin handiena sortu duenetakoa.



tzen saiatzen direla. “Xedea jendeari gauza berriak eta ezezagunak erakustea da”.

Horretaz gain, tokian tokiko musikari gazteei izen handiagoa duten taldeekin ohol-tza elkarbanatzeko abagunea ere ematen die ekimenak. Izan ere, hautatzen duten Euskal Herriko talde bakoitzak kontzertu batean telonero aritzeko parada du. Aurtengo ediziorako hamahiru kontzertu antolatu dituzte, iaz baino bi gutxiago. Peachy Joke, Grises, Gora Gora Kids edo Gas talde gipuzkoarrek joko dute, besteak beste. Datozen kontzertuei begira jarrita, urriaren 29an Arrasateko Amaia Antzokiko hallean Dan Baird & Homemade Sin arituko da eta, azaroaren 9an, Gipuzkoako hiriburuan, The Drums. New Yorketik datozen talde gazte hori egun puri-purian dago. Azaroaren 24an, aldiz, Osaka Monoaurial japoniarren txanda izango da. Musika beltza egiten dute, soula eta funka uztartuz.

Gipuzkoako Foru Aldundia- ren eta lurraldeko bost udalen (Donostia, Zarautz, Hondarribia, Oñati eta Arrasate) arteko hitzarmen baten bitartez gauzatu da Gaztemaniak! Programatzaile lanetan *Forki* aritzen da: proposamenak egin, kontzertuak lotu eta udalei aurkezten zaizkie; eta, bakoitzak taldeen proposamen musikalaren arabera erabakitzen du zein izango den bere herrian telonero gisa ariko dena.

“Minoritarioak, esperimentalak eta ausartak diren proposamenak hautatzen ditugu” dio Berguak. Horretan badu zerikusia programatzailearen gustuak. Orain arteko edizioetan Gaztemaniak!-etik igaro diren taldeen artean nazioarteko izen handi asko daude, hala nola, Stereolab, Eels, Hefner, Micah P.



Edorta Bergua, Gaztemaniak! programaren arduraduna: “Minoritarioak, esperimentalak eta ausartak diren proposamenak hautatzen ditugu”.

Aurten 900.000 euroko aurrekontua izango du kontzertu programazioak, iaz baino %25 gutxiago

Hinson, Lou Barlow edo Stiff Little Fingers. Hein berean, Euskal Herriko talde ugari ere –batzuk ezagunak, besteak ez horrenbeste– izan dute euren musika sormena ezagutarazteko aukerarik; Delorean, Ruper Ordorika, Bide Ertzean, Anari, Sorkun, Desoreka, Itzaletik, Eraso, Big Fingers and The Love Seeds, Laket, Sharon Stoner, Gas, Frida Pipol, Potemkin, Miztura...

Urteek aurrera egin ahala publiko jakin bat ere irabazi du Gaztemaniak!-ek: 20 eta 30 urte bitarte dituzten eta hain komertziala ez den musika gustuko duten gazteak. Jarraitzaile gutxi agian, baina oso fidelak. Iaz, esaterako, guztira 4.000 entzule hurbildu ziren antolaturiko emanaldietara. Berguaren hitzetan, “aldez aurretiko erabakia da kopuru txiki bati zuzentzearena, proiektua abiarazi genuenetik bai baikenekien programatzen ditugun taldeak ez direla gehiago batentzat”.

Musika estiloari jarraiki kontzertuak areto txikietan antolatzen dituzte: Donostian Gazteszenan, Hondarribian Psilocybenean, Oñatin Gaztelekun, Zarautzen Putzuzulo Amets Fabrika gazte-txean eta Arrasaten Amaia antzokiko hallean. “Zaletu batzuk kontzertu guztietara joaten dira herriz herri”.

Donostiako emanaldiak bederatziko euro, gainontzeko herrietakoak zazpi, “Gaztemaniak!-ek egun dauden programazio publikoen artean merkeena izaten jarraitzen du” *Forki*k baieztatu duenez. Makrokonzertuek eskaintza musikala inbaditu duten garai hauetan, Gaztemaniak! gisako ekimenek musikazaleari bestelako alternatiba eskaintzen diote, bai eta agerian utzi ere txikitasunean handia izan daitekeela. ■

Yorick Liburudendan edo
www.libreriayorick.com
eskura dezakezu

**Argitaletxearen
azken argitalpena**

Baba zango-horiak
Catherine Zambon
(Itzulpena Txomin Heguy)

argitaletxea
Argitaletxea
Artezblai



San Frantzisko, 15ren parean, 48003 - Bilbao / Tel: 944 795 287 / www.libreriayorick.com / info@libreriayorick.com